

Azaroak 10

NEGU JAIA, Sarobe erreka

HAURTZARO MENDI TALDEAREN irteera

- **Eguna:** 2024-11-10, igandea.
- **Irteera:** 09:00etan Iturriozko frontoitik.
- **Itzulera:** 13:15ean Iturriozko frontoira.
- **Ibilbidea:** 10 kilometro. Ikasturte honetako 1go irteera izango dugu. Ibilbidea Iturriozko frontoian hasiko dugu eta Ozentzio bidean gora abiatuko gara, kaleari izena ematen dion baselizara. Bidean Garañoko iturria eta latsagia ezagutuko ditugu, eta hor helduko diogu aldapari. Garai bateko gurdibidean gora, Matxilenda baserrira iritsiko gara, eta pistan aurrera eginda, Ozentzioko baselizara. Ozentzio atzean utzi eta aski ezaguna den Sorondora joko dugu eta, bertan, baserriaren eskuin aldetik doan bidea hartuko dugu, Hirubidetako bordaraino. Hemen bide eroso utzi eta eskuinera doan bidezidorrean behera joango gara, Sarobe erreka bazterretik berriro Iturriotza itzultzeko.

Ondoren, Iturri Berri elkartean elkarrekin bazkaltzeko aukera egongo da, 15€ren truke.

- **Izen-ematea:** <https://forms.gle/3VMVhpqruNWF51X9>.
- **Epea:** azaroaren 7ra arte, osteguna.



OHARRAK:

1. LH3tik gorako ikasleak izango dute irteeretara etortzeko aukera.
2. Eraman beharrekoak: arropa eta oinetako egokiak, zira, hamaiketakoa eta ura.
3. Azken orduko ezustekoetarako telefonoak: Fernando 656 751 199 edo Lorena 679 358 740.
4. Mendi Taldearen urteko irteeren informazioa eta irteeretako argazkiak: www.haurtzaroikastola.eus.

